Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

179 zenbakia
2017 **apirila**

Prest!

BERBETAN: IZASKUN URBANETA ETA AINARA BAGUER TXARAMELA

ERREPORTAJEA: 20. KORRIKA DEUSTUALDEAN **BARKUA:** VILLAPELLEJOS, ONDO PASATZEKO TALDEA

TOKIKOM

173-174-175-176-177-178-

Prest! izan

Harpidetu urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

BIHOTZ ALAI DANTZA TALDEA

bekoerri kultur elkartea

MIKELDI DANTZA TALDEA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

berbaizu euskaraelkartea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Deustu ikastetxea Haur eta Lehen Hezkuntza

ZIRIKATZEN!

KERRAVN TALDEA DEVSTV

PARE HAUTSI HITZAK KATEAK

ELORRI Bertso Eskola

Deustuko gazte asamblea

ernai Deustua

erraldoien Ondalan konpartsa

intxixu kultur taldea

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Bilbao

179 zenbakia
2017ko apirila

aurkibidea

Maitane Muñoz - Irati Antepara — **Iritzia** 4

Olatz Arteaga — **Gureak kanpoan** 5

e erreportajea 6
20. Korrika Deustualdean

AEK-ko lagunek 20. Korrikaren balorazioa egin dute. "Berriro ere kolosala" izan dela adierazi du Asier Amondo Korrikaren zuzendariak.

Intxixu ikastola — **Eskolak** 10

Banderak Elorriaga mendian — **Behin batean** 12

Jaiak, inoizko eskaintza handienarekin — **Artikulua** 14

b berbetan 16
IZASKUN URBANETA eta AINARA BAGUERekin

Merkatuan hutsune bat betetzeko asmoz, ingurunearekin estu loturik dagoen produktua sortu dute Izaskunek eta Ainarak. Pasta agroekologikoa ekoizten dute Muskizeko baserri batean.

Hondamenaren panoramika, 1954 — **Irudiak berbetan** 21

24

IKUS-ENTZUNEZKOAK 'Juan Puerto. De Calamonte a Arangoiti'

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA El Viejo Roble taberna

KULTUR TXOTX Garazi Calvo Fernandez eta Oihana Acuña Irigoien

barkua bete herba

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea

Denok bat

Duela egun batzuk Euskal Herri osoa zeharkatu dute furgoneta baten atzetik milaka pertsonak korrika. 2.557 izan dira 11 egunetan egin diren kilometroak. Ikaragarria da hizkuntza batek hainbeste jende elkartzeko duen gaitasuna, hau baitzen aurtengo korrikaren leloa: "Bat zuk eta bat nik, denok bat". Nik neuk lekukoa eramateko ohorea izan nuen lehengusu eta lagunekin batera. Entzunda nuen lekukoa eramateak sortzen duen zirrara zeinen handia den, baina eskuetan duzunean pertsona bakoitzak zerbait ezberdina sentitzen du, bizitza osoan gogoratuko duen zerbait. Milaka pertsonaren oihuak eta kantuak atzetik izateak korrika jarraitzeko indar gehiago ematen dizkizu, zuri dagokizun kilometroa laburra iruditzen zaizu, pentsa! Askok huskeria dela pentsatuko dute, baina argi dago Korrikak Euskal Herria bakarra bihurtzen duela, gutxi direlako munduan bere hizkuntza hainbeste maite duten herriak. Horregatik harro sentitu behar dugu, eta egunero bide hau elkarrekin egin, denok baikara beharrezkoak Korrikak egin duen bezala pausoz-pauso, helmugara heltzeko. Egunero euskaraz bizi gaitezen.

Maitane Muñoz Iturria
hezkitzailea eta mugimendu feministako kidea

Uso zuriaren kristalezko kaiola

Bakea modan dagoen hitza dela ezin dugu ukatu. Ikastetxeetan bakea sustatzen ahalegintzen dira, instituzioetan bizikidetzarako akordioak sinatzen dituzte, desarmea Euskal Herrira heldu da… Hala ere, ez gara bakean bizi.

Gerran bizi den jendartea da gurea; lantokietan, ikastetxeetan, kaleetan… eraso, mespretxu eta lehia etengabean bizi gara. Hau al da bakea?

Bakea ez da gerraren ausentzia, hori baino gehiago da, edo izan beharko zen: lasaitasuna, zoriontasuna, askatasuna... Baina, hemen eta orain, ez gaude ez lasai, ez aske, ezta bakean ere.

Uso zuria bakearen ikur bezala erabili da. Dena den, ikur hau aldarrikatu duten askok etengabeko gerra zikin eta sotila iraunarazteko erabili dute hegaztiaren sinbologia. Bakea aldarrikatzen duten bitartean, politika eta jarrera matxista, arrazista eta klasistak martxan jartzen dituzte.

Bakea aldarrikatu dute gerra estrategiaren bidez; kontzienteki, poliki, sotilki… baina gogor eta mingarri. Uso zuria urteetan kristalezko kaiolan bizi izan da bahituta zegoela konturatu barik.

Armagabetzea Euskal Herrira heldu arren, ez gara bakean bizi, kristalezko kaiolan baizik.

Olatz Arteaga Cabeza

Jatorria: Deustu
Bizitokia: San Frantzisko, AEB
Lanbidea: zientzialaria

“AEBko hiririk ezkertiarrenetariko bat da San Frantzisko, eta giroan nabari da”

Testua
PREST!

Zergatik joan zara San Frantziskora?
Orain dela ia hiru hilabete heldu nintzen lan kontuengatik. Zientzialari moduan lan egiten dut. Bilbon neukan egoera ez zenez batere erakargarria, ezta egonkorra ere, hona etortzeko beka bat eskatu eta, zorionez, jaso egin nuen. Beraz, printzipioz bi urtez egongo naiz hemen, tesi garaian jorratutako gaiari buruzko ezagutzak zabaltzeko helburuarekin.

Zelan egokitu zara?
Orain dela ia bi urte lehendabiziko aldiz etorri nintzen, izan ere, laborategi berean lan egitera etorri naiz. Orduan doktoretza bitarteko egonaldia egitera etorri nintzen, eta orduko lagun batzuk hemen jarraitzen dute. Horri esker egokitzapena erraza izan da.

Zerk harritu zaitu gehien?
Oraingoan ez naute desberdintasunek horrenbeste harritu, aurreko aldian ez bezala. 2015eko udan, lehendabiziko aldiz etorri nintzenean AEBra desberdintasun gehiago sumatu nituen. Batik bat harritu ninduena kale gorrian horrenbeste pertsona bizitzen ikustea izan zen. Bestalde, hiria zeinen garestia den ikustea ere harritzekoa da, bereziki etxebizitza eta janaria.

Zelakoa da zure egunerokoa?
Egunero lanera noa, unibertsitateak kanpus desberdinen artean dohainik eskaintzen duen bus batean. Horren ostean kirola egiten saiatzen naiz, eta lagunekin geratu kontzertuetara joateko, edo etxetan edo jatetxeren baten afaltzeko. Egia esanda, astean zehar Bilbon nuen bizimoduaren antzekoa da oraingoa. Asteburuetan ere lagunekin eta pisukideekin egoteko aprobetxatzen dut, leku berriak bisitatuz. Eta hemengo eguraldia oso ona ez denez (EHrekin duen antzekotasun bat), eguzkia ateratzen denean Mission Dolores parkera joaten gara, bertakoek egiten duten moduan. Benetan ikusgarria da parkean egoten den giroa (musika, dantza…), maiteminduta nauka parkeak.

Zelan bizi dira San Frantziskoko biztanleak?
San Frantziskok daukan bitxikerietako bere biztanleen %60a atzerritarra dela da, beraz oso hiri kosmopolita eta aberasgarria da. Kontua da zaila izaten dela bertako jendea ezagutzea, baina orokorrean jendea oso jatorra dela esango nuke. Behintzat hasierako momentuetatik zu laguntzen saiatzen dira, adibidez, kalean galduta ikusten bazaituzte. Gero, hemen denbora gehiago daramaten lagunen arabera, erlazio sakonagoak mantentzea zailagoa izaten omen da, baina nik oraindik ezin dut iritzirik eman. Nire pisukideak amerikarrak dira, eta benetan jatorrak dira, laguntzeko prest agertu zaizkit beti. San Frantziskoko egoera ekonomikoari dagokionez, oso ona da, izan ere Silicon Valley egotearen eraginez, soldatak oso altuak dira, horrek dakarren arazoarekin ere, bizitzaren prezioa AEBko altuena da eta. Ondorioz, bizikalitate oso ona eta altua da, baina hemengo bizitza mantendu ahal dutenentzat. Eta, sozio-politikoki, AEBko hiririk ezkertiarrenetariko bat da San Frantzisko, ezkertiarrena ez bada, eta giroan nabari da, askatasun eta tolerantzia handia hauteman dezakezu.

Zer diote Donald Trump presidentearen neurriei buruz?
Kezkatuta daude, hemen ez zaie bere politika batere gustatzen, eta bere aurkako manifestazioak ugariak izan dira. Justu ni etorri eta bi egunetara aireportuko istiluak egon ziren, jatorri musulmana zuten pertsonak aireportuan atxiki zituztenean. Argi dagoenez, etorkinak dira kezkatuen daudenak, deportazio arriskuagatik. Dena den, zenbait hirik, *Sanctuary cities* delakoak, Trump presidenteak etorkin ‘ilegalak’ salatzeko eskaera ez dute jarraitzen, eta berak gobernuko diru-laguntzak kenduko dituela esaten badu ere, kaliforniarrei ez zaie gehiegi ardura, ez dutelako ekonomikoki gobernuaren laguntzarik behar. Bestalde, zientziaren munduan ere jendeak ez du begi onez ikusten, klima-aldaketa eta gizakiak sortutako negutegi-efektua asmakuntza bat dela esaten duelako.

INOIZKO KORRIKARIK HANDIENA, INDARTSUENA ETA ANITZENA

20. Korrikaren balorazioa egin dute AEK-ko lagunek. "Berriro ere kolosala" izan dela adierazi du Asier Amondo Korrikaren zuzendariak. "Inoizko handiena izateaz gain, indartsuena eta anitzena izan da" 2017koa.

Testua
PREST!
Argazkiak
korrika.eus

Euskalduna zubitik sartu zen Deustura 20. Korrika apirilaren 6an. Berandu. Ordu erdiko atzerapenarekin, 21:00etatik minutu dezente pasata zeudela. Ordurako ilunduta zegoen zerua eta inguru guztia. Ordurako oso urduri zeuden deustuarrak Korrikaren furgoneta eta lekukoaren zain. Irrikaz, zirraraz.

Bilboko Portu Agintaritzako langileak izan ziren lekukoa Deustura ekarri zutenak Euskaldunako zubitik. Txomin Mentxaka, Manu Hilario, Pilar Villegas eta Ismael Yuberok, hain zuzen ere. Laurak erdi jubilatuta daude egun. 2007tik, 15. Korrikatik, ez dute huts egin portuko langileek. Harrezkero, beti batera egin dute korrika. Campo Volantinen, Bilboko Portu Agintaritzako egoitzaren aurrean, San Antonen, San Mamesen… eta oraingo honetan, bigarrenez, Euskalduna zubian.

Txomin Mentxakak Korrikako 20 ediziotan parte hartu du. 1980an, 1. Korrikan, AEKn ikasle zen. "Oso berritzailea zen dena, oso hunkigarria", Txominen esanetan. Ordutik Korrikak "ez du emoziorik galdu, batu egiten duelako". 20. Korrika ere hunkigarria izan da. Deigarria iruditu zitzaion gauez "hainbeste jende" korrika ikustea. Jubilatu ostean ere, lau lankideak Korrikan parte hartzen jarraitzeko prest daude. "Beti egon gara eta egongo gara", dio Txominek.

Deustuko Ikastolako ikasleek jaso zuten lekukoa Euskalduna zubiaren beste aldean, Botikazarreko parke ondoan. DBHko Antxon Agirrek eta Maite Sarasolak. Ikastolako azken kurtsoko ikasleen artean hautatu ohi dituzte lekuko eramaileak. "Poztasun ikaragarria" sentitu zuen Antxonek hautatua izan zela jakin zuenean. "Guretzat ohorea delako", dio. Deustun baino lehen Antxonek

Alde Zaharrean egin zuen korrika, San Mamesera arte. Handik Korrika utzi eta Deustura abiatu zen.

Ez zen berarentzat Korrikaren lekukoa altxatzen zuen lehen aldia, duela bi urte Irunen eraman baitzuen 11 Kolore egitasmoko lagunekin batera. Deustukoa, baina, "oso kilometro desberdina" izan zela gogoan du, "etxekoa". "Oso urduri" eta era berean "oso pozik" zegoen. Dantza eta kanta egin zuten Antxonek eta Maitek lekukoa eskutan. "Bat, izan bat, denok bat, bat zu eta bat ni" Zirkorrikako erritmoan. Euren unea azkenik iritsi zen, eta "dena" eman zuten. Atzerantz ere ibili ziren, korrikalariei begira, "jendea animatzen".

Done Petri plazan, Deustuko Jai Batzordearen kilometroan, zain zituzten 20 urte bete dituen Berbaizu euskara elkarteko kideak. Karlos Gonzalez elkartekideari "sekulako ilusioa" eragin zion 20. Korrikako lekukoak. Juan Gorriti eskulturgileak sortututako eskuz eskuko tresna ukitu duen guztietan sentitu duen sentipen bera. Hiruzpalau aldiz eraman badu ere lekukoa, azken aldi hau berezia izan da. "Ohore handia izan da –dio–, batetik, Deustuko Jai Batzordeak Berbaizuri lekukoa eramateko aukera hori eman diolako eta, bestetik, elkarteak niri eskaini didalako aukera iaz pasa nuen gaixotasuna aintzat hartuta". Karlosek "berpiztaldia" sentitu zuen Korrikarekin bat. Sentipena partekatua izan da ondoan izan zituen Berbaizu euskara elkarteko beste bi belaunalditako lagunekin, Amaia eta Liberekin.

Amaia Diezek lehen aldia zuen. Lekukoa eramateko prest zeuden Txantxiku astialdi taldeko kideen artean zotz egin eta berari egokitu zitzaion. "Kristoren ilusioa" sortu zion. Une horretan hasi zen urduritzen. Lagunek, urduri sumatzean, aukera aprobetxatzeko eta gozatzeko aholkatu zioten. Lekukoa jaso aurreko minutuetan jarri zitzaion "oilo-ipurdia" gogoan du, eta eskuan izan zuenean lasaitzea lortu zuen. Denbora nahikoa izan zuten Karlos, Libe eta hirurek lekukoa txandaka hiruzpalau aldiz elkarri emateko.

Kilometroaren amaieran Olaeta balleteko kideei eman zieten lekukoa. Une berezia izan zen. "Nekerik gabe", Amaiak aurrera jarraitu zuen San Inaziora arte korrika.

Aurreko egunean galdetu zion Gure Esku Dago lantaldeko kide batek Edorta Urrutiari Korrikako lekukoa eramateko prest zegoen. Edortak, apal, lantaldeko gainerako lagunak izan zituen gogoan, besteek ere izan zezaketalako lekukoa eramateko ilusioa. Egun handia iritsi zenean aipatu zion Ibon

"Korrikak ez du emoziorik galdu, batu egiten duelako"


1854

BAT ZUI
1856

BAT ZUI
OTXANDIOTIK IRUÑERA

semeari aukera eskainiz gero, ez zuela alperrik galduko. Horregatik etxetik irten ziren unetik "urduri" egon ziren. Urduritasun handiagoa sentitu zuten metroan eta Ibarrekolandako biribilgunerako bidean. Elkargunea finkatuta zuten bertan.

Gure Esku Dagoko kide batek bigarrenez galdetu zion Edortari lekukoa eramango zuen. Edortak zalantzarik gabe baietz erantzun zion. Ordutik aurrera "erlojuari begira etengabe" egon ziren aita-semeak. Ibonek telefono mugikorraren bitartez jarraitu zuen Korrikaren ibilbidea. Horrelako batean, motorrak eta furgonetak ailegatu ziren. "Gu apurtxo bat aurreratu ginen eta errotondaren aurreko aldean jarri ginen Olaeta balleteko umeengandik lekukoa jasotzeko", azaldu du Ibonek. Aitaren aulkia bultzaka hasi zen, eta hortik aurrera dena bihurtu zen poz, kantu, eta oihu. "Luze eta arin" gozatu zuten. Lagun asko izan zituzten ondoan, Gure Esku Dagoren kamiseta laranja soinean zutenak. "Olatu laranja sortu zen". Ibonen hitzetan "oso une polita" izan zen. Mila pertsona inguru eurekin batera sentitu zituzten. "Hainbeste kilometroren zati txikitxo bat" patekatu zuten. "Harrigarria".

Luzea izan zen itxaronaldia Azkue fundazioko zuzendari Iurdana Acasusorentzat, Amaia Ocerin fundazioko kidearentzat eta bere alabarentzat ere "atzerapen handia zekarrelako Korrikak. Iritsi zen halako batean. "Poztasun eta zirrara handiz" hartu zuten lekukoa Sarrikon, metro sarrera parean, eta Euskararen Etxean utzi zuten. "Sorpresa" izan zen Iurdanarentzat, Azkue fundazioaren egoitzaren aurrean San Inazioko ikastetxeetako ikasle, irakasle, guraso, langile eta Ondalan erraldoien konpartsako kideek egin zieten harrera. "Jai giro itzela muntatuta zeukaten". Ongietorri koloretsua eta jendetsua egin zioten Korrikari.

Iurdanaren ustez euskaldunek ez ezik euskal jendarteak "espero duen zerbait" da Korrika. "Gizarteak behar ditu bere konpromisoa berrizteko horrelako une esanguratsuak sortzea, batik bat ez hain euskaldunak diren zonaldeetan".

Deustuko azken kilometroa, Elorrietatik Lutxanara artekoa, LKS Ingeniaritza eta LKS Consulting enpresako kideek partekatu zuten. Aitor Lejarzegi LKS Ingeniaritzako lehendakaria izan zen lekuko eramaileetako bat. Gau hartan Bilbon zegoen "giro polita" nabarmentzen du Aitorrek. "Jendea Korrikaren petoarekin ikus zitekeen nonahi".

"Ongietorri koloretsua eta jendetsua egin zioten Korrikari San Inazion"

Osteguna, gaueko hamarrak, eta Bilboko auzoetan bost ordu bueltaka eman eta gero Deusturen muturrera espero baino jende gehiago heldu zen Korrikaren pankartaren atzean. "Indarra" sumatzen zen. Izan ere Korrikak "jende asko mugitzen du". Lankideen babesarekin, lehenengoz lekukoa hartu zuenean "subidoia" igarri zuen Aitorrek. Laburra, "oso laburra" iruditu zitzaion Lutxanara arteko kilometroa.

Erandiorantz jarraitu zuen itsasadar bazterretik 20. Korrikak Deustu atzean utzita minutu asko, hainbat lekuko aldaketa eta milaka pauso eta emozioren ondoren.

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE · RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

ESKOLA, GURE AUZO TXIKIA

Eskolak bere esparruak ditu eta nork berean, gurasoak, ikasleak eta irakasleak, lan egin behar du komuna den proiektua aurrera atera nahi badugu.

Testua eta argazkiak: Intxixu ikastola

Baina horrez gain, badira momentu batzuk non hiru estamentuak elkartzen garen eta gure ikastolan ikusgarriak izan dira lortutako emaitzak, adibidez, eskolako ortuan, non irakasleen eta ikasleen beharrei erantzuteko elkarrekiko lanak emaitza ezin hobea eman duen.

Baina oraingo honetan, beste egitasmo bat komentatu nahi dugu eta da, hain zuzen ere, ortuaren ondoan dauden ziboen esparruari dagokiona. Izan ere, oso leku atsegina dute gure ikasle gaztetxoenek jolasten ibiltzeko, baina erabileraren erabileraz hondatuta eta arriskutsu zegoen aspaldiko partez.

Esparru hori egokitzen ibili gara ikastolan, Gabonetako oporretan. Ez zegoen Bilboko Udalari espazio horren txukunketa eskatzea, ez baita haren ardurapekoa eta beharra ikusita, zuzendaritzak bideratu zuen boluntario moduan ikastolako hiru estamentuetako edonor hurbil zedin laguntza ematera.

Eta gauzatu da, berriz ere. Gabonak pasa ondoren, denok frogatu ahal izan dugu tokia berreskuratuta geratu dela.

Euskal Herrian, berebizikoa izan dugu auzolana. Egin dezagun eskolan ere, gure auzo txikian, auzolana guztion mesederako.

ARTEBI

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA

MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

BANDERAK ELORRIAGA MENDIAN

1790eko hamarkadan ekin zioten modu finkoan Elorriaga mendiko talaitik seinaleak bidaltzeari. Bilboko Kontsulatuak atondu zuen zeregin horretarako eta inguruan bizi zen pertsona bati eman zion ardura. Itsasoko berriak bandera sistema baten bitartez heltzen ziren Algortatik Bilbora.

Testua: Hektor Ortega

Joan-etorri handiko portua zen Bilboko itsasadarra XVIII. mendean. Horren ondorioz, informazioak gero eta garrantzia handiagoa zeukan. Hala portuko arduradunak (Bilboko Kontsulatuak) nola merkatariak, itsasgizonak, ontzijabeak, sirgerak, kargerak, gabarrazainak eta beste zazpi gremio jakitun egon behar ziren, lanak arin eta ondo egingo baziren.

Horregatik, Bilboko Kontsulatuak komunikazio sistema iraunkorra ezarri zuen Algorta eta Bilbo artean, itsasotik zetozen berriak hiribilduan ahalik eta arinen jakiteko. Banderak eta *gallardete*ak erabiliz, komunikazio kodea ezarri zuten Algortako San Inazio gazteluko zelatariak berriak bidaltzeko. Bandera eta *gallardete* haiek Elorriaga mendiko talaieroak ikusi behar zituen eta hark ere bere zutoinetan ezarri, Bilbotik ikus zitzaten. Horrela, albisteak aitaren baten helduko ziren Abratik Bilboraino.

Sistema hura 1790eko hamarkadan hasi zen. Eta eragingarria izan zen. 1794an, Espainiako erresumak eta Frantzia iraultzaileak Konbentzio gerra piztu zutenean, euskal lurraldeak fronteko lehenengo lerroan gelditu ziren, baita kostaldea ere. Orduan, merkataritza informazioaz gain, abisu militarrak ere eman behar zituzten talaieroek. Adibidez *gallardete* zuria goian eta gorria behean jarriz gero, itsasoan ontzia agertu zela esan nahi zuen. Eta horiei bandera beltza erantsiz gero, hondoratu egin zela.

Gerra hartan etsaia ez zen itsasotik heldu, lehorretik baizik. Baina hurrengo urteetan,



XVI. mendeko irudi honetan, Deustua, Elorriaga mendia eta Portugaleteko barra ageri dira.

Espainiako erresuma ia beti gatazketan burubelarri sartuta ibili zen sasoian, komunikazio sistema hori arretaz zaindu zuten agintariek, hil ala biziko berriak jakinarazteko bide egokia zelakoan. Bitarte horretan hobekuntzak egin zituzten, hala nola Agustin Humaran arkitektoaren gidaritzapean etxea eraiki talaieroari eta inguruetan babesak (hormak) altxatu, baita bandera kodeak aldatu eta egokitu ere. 1816an, Kontsulatuak 2.970 estatuko lursaila erosi zion Deustuko herriari talaiaren ondoan.

Talaiero zerrenda ez da oso luzea eta familia bati lotuta ageri da. Frantzisko Arteaga ibili zen banderen arduraz eta, hil ostean, 1804an, haren alargunak, Simona Motak, postua eskatu zuen, baita lortu ere. 1822 eta 1855 bitartean seme Manuel Arteaga arduratu zen. Diru gutxi ordaintzen zieten, eginbeharrak ere gutxi zirelako. Jakina, talaieroak inguruan bizi ziren. Adibidez, Manuel Arteaga, Elorriaga mendiko tontorra eta Enekuri artean zegoen Arteaga baserriko errenteroa zen.

Simona Motak talaieroarena ez ezik, bestelako lanak egin zituen. Kontsulatuak etxea eraiki zuenean, gizonak ibili ziren lanean (hargin, peoi, arotz, mandazain, gabarrazain...) baina baita emakumeak ere, sasoi hartan ohikoa zen bezala. Simona berak, beste emakume andana batekin batera, peoi jardun zuen etxea altxatzeko lanetan. Eta Ignazia Mentxaka deustuarra, mandazain.

Berriz eta San Antolin

Banderen sistema horrek inork gutxi esperoko zuen ondorioa ekarri zuen: mendiari izena aldatu zion. Artean Elorriaga zen mendi hura,

Elorriagako talaian XIX. mendean eraikitako fortea. Argazkia: Indalecio Ojanguren/guregipuzkoa.eus

eta sarritan Berriz ere esaten zioten auzo hori dagoelako tontorretik hur. San Bartolome eta San Antolin ere esan izan zaio, santu bi horiei eskainitako ermita gailurretik metro gutxira zegoelako.

Kontsulatuaren agiri zaharretan, Deustuko talaia horri hiru izen hauekin esaten zioten: "San Antolin", erabiliena, "Guardia" eta "alto del barrio de Berriz". Geroago, ostera, monte Banderas nagusitu zen erdaraz. Azken urteotan Elorriaga izena suspertzen ari da.

Lehenengo gerra karlistan talaia gotortu eta goarnizioa jarri zuten, Bilboren defentsarako. Gerraren ostean hasi zen bandera zerbitzuaren hondamendia, telegrafoaren eskutik. 1841etik aurrera, Portugaletetik telegrafoz jakinarazten zituzten ontzien joan-etorriak. Hala ere, agirien arabera, Manuel Arteaga 1855. urtera arte egon zen San Antolinen talaiari.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

artikulua
Berbaizu

25 URTE ETA HAZSTEN!

Azken bi PREST!-en arteko tartea berezia bizi izan da guretzat: jaiak gozatu ditugu, apirilaren 1ean Dariola eta Berbaizuren 25 urteak ospatu genituen eta Korrikaren lekukoa eroan genuen.

Testua
Berbaizu elkartea
Argazkiak
Jaione Ayestaran
Aitziber Olabarrieta
Berbaizu elkartea

Azken *Prest!* atera orduko, jaiak hurhurrean geneuzkan eta pregoia prestatu behar, urduri geunden, baina deustuarrak harrituko genituela esan eta hala egin genuen: *Izarren hautsa* kantarekin despistatu eta rapeatzeari ekin genion Done Petri plaza dantzan jarriz: "Has dadila festa / giroa eta parranda / Deustuko herriak / egin dezala eztanda". Jaiak hasiak ziren eta urtero lez, txosna jarri eta Jai Batzordeak antolatu zituen jarduera guztietan parte hartu genuen, baita tortilla lehiaketako epai-mahaian ere. Ez da dudarik, Deustuan tortillak egiten badakigu.

Jai osteko ajea gainditzeko astirik ez, eta urteurrena heldu zen; '25 urte eta haZSten eguna'. Aperitifa bezperan antolatu ziguten Mullerenean: Giltxikaro antzerki-taldeak *Adarretatik zintzilik* komedia jokatu zuen. Ane Zabalak eta Galder Perezek 40 urte bete dituen belaunaldiaren azpimarra umoretsua oparitu ziguten eta hainbat barre-algara eragiteaz gain, gure jardunerako ideia berriak eman zizkiguten ('Prezinto-eguna' noizko?). Bien bitartean, sukaldaritza taldea hurrengo eguneko bazkaria prestatzen ari zen. Martxoak 31 zituen orduan, egun handiaren bezpera...

HaZSi eta erronka berriei heldu

25 urte egun batean biltzea zaila da, ia ezinezkoa, baina erronkari heldu eta egun osoko egitaraua prestatu genuen apirilaren 1ean, atzera begira barik, aurrera begiratzeko. Eguerdian bazkide batzarra deitu genuen Bidarten. Asmo bat geneukan buruan: zelan laburbildu elkartearen egoera eta proiektu pare bat aurkeztu kaparrada eman barik? Horretarako, Janire Soldevillak eginiko *25 urte eta haZSten* dokumentalaz baliatu ginen eta *Deustuan 72 ordu euskaraz* proiektua aurkezteko aprobetxatu genuen, Egiako edota Aguraingo proiektuen ildotik Deustualdean aurrera eroan nahi duguna. Batzarra bukatu aurretik, Zigor eta Natalia berbaizukide eta lagunak omendu genituen, izan ere, joan ziren arren beti izango ditugu gomutan.

Bidarten bukatu ostean, Ibarrekolandara mugitu ginen, non Aitor Urkijo *Boti* eta *Boni* gure zain zeuden kamiseta tailerrerako. Umeentzako izan arren, nagusiak ere animatu ziren eta denek kamisetak eroan zituzten etxera. *Souvenir* benetan ederra! Kamiseta gehiago egiteko eskaerak jaso ditugu eta batek jakin, baina urteurrena aitzakia ona da gure 'arropa-linea' eguneratzeko. 135 lagunek bazkaldu genuen Ibarrekolandako patioan, hainbat profilekoak: Dariolakideak, bazkideak, Kantugintzakoak, Txantxikukide ohiak, Jai Batzordeko kideak, Ekuador Etxeko ikasleak, Gometxako umeak... Giro ederra eta janari gozoa, guzti-guztia auzolanean an-

tolatua eta euskarak elkartua. Bazkalostea alaitzeko Kantugintzako lagunen kantak eta Ander Anakaberen bertsoak kantatu genituen.

Ordutik aurrera, musikak ez zuen etenik izan. 18'30ean Laize MC eta El Aprendiz musikariek rapa ekarri zuten Mullerenera, sorpresa eder batekin gainera; jaietako pregoia kantatu genuen Laizerekin. Rapaz gozatuz gero, Orbelak taldearen rockera pasatu ginen. Gazte deustuarrek Berriz Bideko plaza dantzan jarri zuten. Berri Txarrak edota Kortaturen doinuak entzun genituen zubipera hurreratu ginen gazte eta ez hain gazte andanak. Iluntzean, Gazte Lokalera mugitu ginen non Alex Arregiren talde berriak, Txoriak Negutegianek, bere doinu rock-elektro-industrialak jo eta Keatsek eginiko *Erdaraitor* ereserkia moldatu zuen. Kanta zaharrak dantzan eta kantan jarri zuen Gazte Lokala. Musika eskaintza borobiltzeko DJ Txoteo eta DJ Elbar musika pintxatzera animatu ziren. Dantzan bukatu genuen apirilaren 1a.

Urteurrenak azken sorpresa ekarri zigun: Jai Batzordeak Korrikaren lekukoa eroateko aukeratu gintuen eta apirilaren 7an hiru berbaizukideok lekukoa hartu genuen Done Petrin: Karlosek; Berbaizuren ibilbidea hasi zuenetako batek, Amaiak; Txantxikun hazi den begirale batek, eta Libek; hasten eta hazten ari garela irudikatzen duen Txantxikuko umeak. Urteurreneko ospakizunak bukatzeko irudi perfektua: hiru belaunaldi mugimenduan, aurrera, euskararen lekukoa elkarri pasatzen.

berbetan

IZASKUN URBANETA eta AINARA BAGUERekin

Txaramela pasta agroekologikoaren ekoizleak

“Ez dugu nahi Txaramela fabrika batean

Merkatuan hutsune bat betetzeko asmoz, ingurunearekin estu loturik dagoen produktua sortu dute Izaskunek eta Ainarak. Ingurugiro Zientzietan eta Geologian heziak, pasta agroekologikoa ekoizten dute Muskizeko baserri batean. Bosgarren urtea dute eta ez dute gelditzeko asmorik.

Testua: Nuria Arroyo
Argazkiak: Iñigo Azkona

bilakatzea, gurea izatea nahi dugu”

Toki ezberdinetakoak izanda, nola ezagutu zenuten elkar?

I: Ingurumen Hezkuntzako proiektu batean lanean ezagutu genuen elkar. Umeei zuzendutako unitate didaktikoak, tailerrak, baliabideak... egiten.

Eta nola sortu zen Txaramela proiektua?

I: Hasiera batean fronte asko irekita geneuzkan. Alde batetik, Ingurumen Hezkuntzako proiektu horretan lanean geundela, gure proiektu propioa osatu nahi genuen. Bururatu zitzaigun ur-erroten erabilera gaur egun ia-ia desagertu egin dela eta, hori berreskuratzea eta bertan tailerrak egitea. Horretarako lursail bat topatu behar genuen, zerealak erein, lehen egiten zen bezala, ur-errota martxan jarri eta bertan Ingurumen Hezkuntzako tailerrak, ogia, taloak, etab egin.

Beste alde batetik, Italian bizitzen egon zen lagun batek esan zigun hemen ez zela pasta ekoizten, eta pasta egitera animatu gintuen. Guk pastaren inguruan ez genuen ideiarik. Lemoizen bizi zen italiar batek erakutsi zigun zelan egiten zen pasta eskuz.

Gero ortu bat jarri genuen martxan, Zamudion. Lagun baten amak utzi zizkigun lur batzuk eta hasi ginen barazkiak ekoizten eta kontsumorako otzarak egiten.

Lehenengo udan Marseillara joan ginen, pasta zelan egiten zen ikastera; Nafarroara garia zelan hazten zen ikustera; eta Bizkaiko errotetatik joan ginen atez ate gure istorioa kontatzen, gure ideia zelako errota batean lan egitea. Baina ikusi genuen errota gehienek ez zutela funtzionatzen edo jendea oso nagusia zela, eta gure ideiaren berri ematen genienean apur bat harrituta geratzen ziren, errota kentzera gentozelakoan edo. Azkenean, nire familiak zeraman Galdameseko errotan hasi ginen garia ehotzen.

Zer esan nahi du Txaramela izenak?

I: Errotaren pieza bat da. Txaramelak neurtzen du zenbat gari kantitate erortzen den tolbatik ehotzeko harrietara.

A: Lekuaren arabera ezberdin deitzen zaio pieza horri. Marurin esaten da txaramela, baina Durangaldean, adibidez, emaratile da. Izena liburu batean irakurri genuen, eta polita iruditu zitzaigun.

Zer ezberdintasun dago zuek egindako pasta eta ohiko pastaren artean?

A: Guztiz ezberdina da. Hasteko, guk erabilitako zereala modu ekologikoan ekoiztua da. Garia familia txiki batek ekoizten du. Ekonomia eredua txikia da.

Guk jasotzen dugu garaua eta ehotzen dugu. Ehotzerakoan erabiltzen dugun errota harrizkoa da, honela lortzen dugu irina integrala izatea, honek garau osoa txikitzen baitu. Gero guk eskuz bahetzen dugu, eta kentzen diogu zahi apur bat,

“Agroindustriak egiten duen irina integrala ez da benetan integrala, gurea bai”

IZASKUN URBANETA eta
AINARA BAGUERekin

▷▷ SAKONEAN

“Proiektua atera zen ia konturatu barik”

Hau al da zuen lana ala aisialdian egitea gustatzen zaizuena?

I: Gure lana da hau. Txaramelarekin hasi ginenean nik erabaki nuen nire lana uztea. Ainarak jarraitu zuen apur bat gehiago, azken finean dirua behar genuen eta. Baina gero berak ere utzi zuen, eta orain biak honetan aritzen gara.

A: Orain arte topera lanean ibili gara, udan, asteburuetan, orduak eta orduak sartzen. Apurka-apurka ari gara normaltasunera egokitzen.

Merezi du?

I: Bai. Batzuetan badaukagu horrelako bajoi momentua, baina merezi du. Atzera begiratzen duzu eta ikusten duzu zenbat ikasi duzun eta zer lortu duzun.

A: Denetarik pasatu dugu eta, bai, gogorra izan da. Batzuetan itota sentitu gara milaka gauza txarto atera direlako. Baina gu oso pozik gaude, eta beti pentsatzen dugu lortuko dugula. Gainera askatasun pilo bat dugu gure egunerokotasunean, ordutegiak guk finkatzen ditugulako.

Txaramelarekin hasi baino lehen, inoiz pentsatu duzue pasta ekoitziko zenutela?

I: Ez. Ez genuen gure burua ikusten lan horretan bizitza osorako.

A: Hau atera da ia-ia gu konturatu barik. Lanean oso gustura geunden eta batzuetan estresatuta geundenean motibatzen ginen pentsatzen nagusitan hartuko genuela ur-errota bat eta hara joango ginela. Baina apur bat txantxetan zen, etorkizunari begira. Azkenean hasi ginen, berotu ginen, eta dena oso azkar joan da.

osasuntsuago izateko. Industriak egiten duena da, garaua errotara sartu baino lehen, azala eta zati nutritiboak kendu. Almidoia bakarrik uzten du, orduan proteina asko jarraitzen du izaten, baina nutritiboenak galdu ditu. Eta gero irin integrala lortzeko zahi apur bat sartu eta dena nahasten dute. Ez da benetako irin integrala.

Jarraitzeko, guk ez dugu oso tenperatura altua erabiltzen, horrela ez dira galtzen garauaren propietateak. Oratzerakoan ere, erabiltzen ditugun osagaiak modu ekologikoan ekoiztuta daude, hemengo baserrietan erositakoak: barazkiak, frutak eta espeziak. Ez dugu botatzen gehigarririk, ez koloranterik. Berezko zaporea dauka pastak, ez zaio saltsarik erantsi behar.

Zein da zuen konpetentzia zuzena?

A: Supermerkatuan saltzen den pasta eta horren prezioa. Azken finean, guk prezioa ahal izan dugun guztia murriztu dugu, baina, hala ere, supermerkatuekin konparatuta garestiagoa da.

Nortzuk dira zuen erosle ohikoenak?

I: Osasunarekin kezkatuta dagoen jendea, bertako produktuak kontsumitzearen alde daudenak, eta jende gaztea orokorrean.

Jende nagusia ez dago oso ohituta pasta jatera.

A: Ingurumenarekin ere kontzientzia daukatenak. Eta guraso gazteak ere, umeek jateko.

Non aurkitu dezakegu Txaramela pasta?

I: Astebururo mugitzen gara azokaren batera. Baditugu postu finkoak: Bilboko Areatzan hirugarren zapatuan, adibidez. Eta azoka handietara ere joaten gara, San Tomasera, esaterako. Beti hiri eta herrietako azoketan. Kontsumo taldeetan eta denda batzuetan ere banatzen ditugu paketeak.

Zer nolako harrera izan duzue?

I: Oso ona. Egia da hasi ginenean gure produkzioa askoz ere txikiagoa zela eta dena saltzen genuela, produktu berri bat zelako. Orain salmentak jaitsi dira, baina ez bakarrik pastan, azoketan orokorrean. Batzuetan jendea azokara jatera eta edatera bakarrik joaten da.

A: Herriaren arabera ezberdina da. Herri batzuetan jendea azokara joaten da produktuak ikustera edo elikagai tipikoak erostera, euskal pastela eta horrelakoak, eta beste herri batzuetan jendeak interes handia agertzen du, eta eramandako guztia saltzen dugu.

Beste proiekturik baduzue?

I: Ideia asko ditugu, baina momentuz ez daukagu indar nahikorik. Egiten ditugu pasta tailerrak eta Ingurumen Hezkuntzarekin lotutako tailerrak eskoletan, euskaltegietan eta batzuk hemen, baserrian.

A: Tailerretan lantzen dugu ingurumena, osasuna, elikadura, pastaren ekoizpena eta horrelako gauzak. Ez da sukaldatzeko tailerra.

Zelan ikusten duzue Txaramelaren etorkizuna?

A: Handitu behar dugu ekoizpena proiektu hau errentagarria izateko. Baina ez dugu nahi kanpora eroan pasta, gure zonaldean lan egin nahi dugu.

I: Momentuz ez digu ematen bizitzeko, soldata txiki bat soilik ateratzen dugu. Gure asmoa da biok soldata on bat edukitzea eta honetaz bizitzea. Baina ez dugu nahi gure proiektua fabrika batean bihurtzea edo supermerkatuetan saltzea. Nahi dugu gurea izatea, ekonomia eredu txikia mantentzea. Momentuz Facebook orria daukagu zabalpena egiteko eta urte amaierako espero dugu eginda izatea web orria, hortik ere eskaerak jasotzeko.

“Ekonomia eredu txikia mantendu nahi dugu”

Merkatua zabaltzeko proposamenik jaso al duzue?

A: Azoka batean BM supermerkatu bateko arduraduna hurbildu zitzaigun, eta esan zigun ia nahi genuen gure pasta supermerkatuan saldu. Baina gure ekoizpena oso txikia da.

I: Horrez gain, horrekin dilema txiki bat daukagu, zeren azken finean hori ez da guk aurrera eraman nahi dugun eredua, ez gaude horren alde. Guk nahi duguna da bitartekariak gero eta gutxiago egotea, bestela gure pasta garestituko da, eta ez dugu produktu elitista bilakatzea nahi.



ARANGOITI

XIII. Euskal Jaia

Maiatzaren 6tik 14ra 13. urtez Euskal Jaia ospatuko dute arangoitiarrek. Auzoko taldeek parte hartzen dute antolaketan, merkatarien laguntzarekin eta Bilboko Udalaren babesarekin. Irauten duen astean euskara ohi baino gehiago erabiltzen eta entzuten da Arangoitin, baita normalean entzuten ez den lekuetan ere, eta hori "pozgarria eta beharrezkoa" da antolatzaileentzat. Pala txapelketarekin hasiko da Euskal Jaia, lehen asteburuan, maiatzaren 6-7an. Aurretiaz izena eman behar da txapelketan parte hartzeko. Eskola Kiroleko taldeen partidak eta trikipoteoa ere egongo dira. Poteoan, besteak beste, Berbalagun taldeekideak izango dira protagonista. Lagunartean euskaraz hitz egiteko elkartuko dira maiatzaren 6an, 20:00etan, auzoko tabernetan.

IBARREKOLANDA

Txirrindulari bat harrapatu du furgoneta batek

Martxoaren 24an, furgoneta batek bizikletan zihoan emakume bat harrapatu zuen Ibarrekolandan, bidegorrian. Gurutzetan ospitaleratu zuten emakumea, koman, baina ez egoera larrian. Gertakaria salatzeko eta txirrindularien segurtasunaren alde egiteko Biziz Bizi elkarteak protesta deitu zuen. Hamabost minutuz euren haserrea azaldu zuten hiriko txirrindulariek udaletxe aurrean kontzentratuz. Trafikoaren baretzearen aldarrikapena izan zen nagusi. Biziz Bizi elkarteko Jabi kideak salatu du udal ordezkariek segurtasun arazo horren inguruan izandako "interes falta", eta egunero bizikletan ibiltzen diren pertsonentzat babes gehiago eskatu du.

San Inazioko Auzo Etxearen ateak "beti zabalik"

Apirilaren 1ean ireki zituen ateak San Inazioko Auzo Etxe berriak Navarro Villoslada kalean. Prozesu luze baten ondoren, auzotar talde batek urteetan itxita egon den gunea "berreskuratu" du, euren "beharrak eta interesak asetzeko baliabide falta" sumatuta. Azaldu dutenaren arabera, asmoa "auzotar guztiontzako erreminta bat" izatea da, elkarren arteko "sare egonkor" bat eraikitzeko. Horregatik, ideiak, nahiak eta proposamenak "partekatzera hurbiltzeko" deia luzatu dute. Uneoro ateak irekita dituztela adierazi dute, "proiektua ezagutu eta lagundu nahi duen edonorentzat". Aurrerantzean, atontze-lanak eta egitarau propioa tartekatuko dituzte, besteak beste, ekin diote jada zine emanaldiari.

DEUSTU

Udaberri antirrepresiboa

Deustuko Gazte Asanbladak eta Gazte Lokalak 'Udaberri antirrepresiboa' izeneko egitasmoa antolatu dute eta bederatzi jardueraz hornitu dute. Aurkezpenak, hitzaldiak, proiekzioak eta jaia ere izango dira. Besteak beste, Grebalariak Aske plataformaren hitzaldia eta bideo emanaldia (maiatzak 17); Eleak mugimenduko kideen hitzaldia Mozal legeei buruz (maiatzak 11); *120 ordu* (maiatzak 15), *Z* (maiatzak 17), *Diaz no limpiés esta sangre* (maiatzak 24) eta *Hautsitako leihoak* (ekainak 13) filmen proiekzioa; eta Errekaldeko Etxarri gaztetxeari elkartasuna adierazteko jaia (maiatzak 13).

Urtea: 1954

Txema Luzuriaga

Hondamenaren panoramika

Deustuko Kanaleko obraren ikuspegi panoramikoa eta Deustuko ibarrean eragin zuen hondamena duzu hauxe. Obraren erdigunea da argazkian ikusten dena. Bertatik tonaka lur atera zuten. Zamatzeko tokitik gangilera eta hortik itsasora. Eskuinean Gor-mutuen Kolegioko eraikina ageri da, Sarrikoko parkea eta eraikitzeke zegoen San Inazioko gune berria. Ezkerrean, berriz, Deustuibarrako industriak izan zuen ondorena antzeman daiteke, baita Deustuko bizitza soziala ere, Uztaran jauregiak ordezkatuta. Ordurako, baina, jauregia eraitsita zegoen. San Pablo parrokiaren goiko aldean kokatuta zegoen Uztaran. FOATek utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

www.bilbohiria.com
BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
berriak * musika
elkarrizketak

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP
Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

Oktoberfest
Etxeko berezitasunak:
txerri-ukondoa eta saltxitxak
Urtebetetze askariak
ematen ditugu
Santxo Azpeitia, 3 - 94 447 22 83

Zer egingo zenuke zure ametsetako oporretan?

Libe Diaz de Argandoña Erribera

Lagunekin joango nintzateke munduko beste puntara eta han luxu handiko hiri bat bisitatu.

Maddi Sarrionandia-Ibarra Erribera

Lagunekin egongo nintzateke, eta bidaiak egingo nituzke beraiekin.

Mikel Bijueska Deustu

Lagunekin joango nintzateke toki polit batera, eta bertan beraiekin egon.

Maider Navas Deustu

Hiri batera joango nintzateke kultura ikastera, Amsterdamera adibidez.

Ainhoa Diaz Arangoiti

Beste herrialde batzuk ikustera joango nintzateke hegazkinez.

Aner Varela Deustu

Hawaiko hondartza batera joango nintzateke.



>> IKUS-ENTZUNEZKOAK

OINARRIAN ETA EZKERREAN BETI

Alternatiba alderdiko militante "nagusi eta berezienetakoa" da Juan Puerto Morcillo arangoitiarra. Ez da inoiz buruzagi politikoa izan, eta hala ere "saltsa guztietako partaide" izan da. Bere bizitza eta militantzia laburbiltzen duen dokumentala ikusgai jarri dute sarean.

Testua: Lur Mallea - **Argazkia:** Alternatiba

Militante moduan ibilbide oparoa du Juan Puerto Morcillok, eta hori dela eta erabaki zuten Alternatibako ordezkariek egin zitzaiokeen omenaldi onena "bere ibildearen emaitza jasotzen duen zerbait ekoiztea" zela. 49 minutuko iraupena duen dokumentala da emaitza, *Juan Puerto. De Calamonte a Arangoiti* izenekoa (AlternaFilms, 2016). Hainbat lekutan aurkeztu eta proiektatu ostean, Interneten sareratu berri dute.

Mikel Carramiñana kazetari eta Alternatibako kidearengana hurbildu zen Juan Puerto bere bizipen asko idatzita zituela esanez. Meridan jaio (Badajoz), Calamonte herrian hazi eta 60ko hamarkadan Euskal Herrira lanera etorri eta bertan langileen mugimenduan eta ezkerreko politikan bizitako hainbat une jasota zituen Juanek. 90eko hamarkadara arteko oroitzapenak. Bere memoriak, baina "ez zentzu hertsian". Testu horiek erabilita, elkarrizketaren bat atera zitekeela pentsatzen zuen. Mikeli, aldiz, beste zerbait egitea bururatu zitzaion, eta beste zerbait hori "dokumentala izan da". Mikelek berak, "etxekoen artean" –Alternatibako kideak– osatutakoa. Eta horrelakoetan gertatu ohi den bezala, "uste baino lan potoloagoa izan da". Hasteko, hiru orduko grabaketa egiteko lana eta, gero, 50 minutura heltzen ez den azken bertsioa muntatzeko.

Juanen bizipena 60ko hamarkadan beste herri batera lanera joan den pertsonarena da. Alemania eta Bartzelona aukera moduan izan bazituen ere, Euskal Herrira etortzea erabaki zuen. Arangoitira, hain zuzen ere, bertan herrikide ezagunak zituelako. Iritsi zenean, Arangoitik oso bestelako itxura zuen. "Txabola eta etxe gutxi batzuk" baino ez zeuden. Taxista batek ez zuen bertara eramaterik nahi izan bidea "txarra eta arriskutsua" zelako. Arangoitin herrikideekin bizi izan zen. Txandaka egiten zuen lo "*cama caliente*" deritzanetan. Nahikoa diru izan zuenean etxe propioa alokatu zuen, eta bere ama eta arreba ekarri zituen.

CCOO sindikatuan eta alderdi komunistan, legez kanpoko alderdia zen garaian, hasi zen militante gisa. "Heldu eta gutxira ikusi zuen hemen bazegoela beste langile mugimendu bat Euskal Herria nazio bezala irudikatzen zuena eta bazegoela Euskal Herria subjektu politikotzat zuen beste komunismo bat". Txomin Ziluaga eta Santi Brouardek bezala pentsatzen zuen "abertzalea ez ezik komunista edota sozialista izan zitekeela", eta batik bat "ezkerrean uste baino eremu askoz zabalagoa zegoela".

"Hein handi batean", dokumentalak badu "ikutu berekoia" ere, zuzendariak ezkutatzen ez duena. Juanen bizitza eta bizipenak baliatu ditu Alternatibak zortzi urte eskasean alderdiak egin duen bidea irudikatzeko. Nolabait, Juanen eta Alternatibaren "ibilbideak paraleloak" dira Mikelen esanetan. Eta, besteak beste, ikus-entzunezko lanak erakusten du Alternatibak EH Bildu koalizioari egin dion ekarpena: "Burujabetza ulertzeko eta burujabetzaren alde egiteko dauden beste modu batzuk".

Iazko Errepublikaren Egunean dokumentalaren trailerra ikusteko aukera izan zuten Arangoitin. Estreinaldia azaroaren 5ean egin zuten Alternatibaren Batzar Nazionalaren ostean, Juan ondo ezagutzen duten pertsona asko bildu zirela aprobetxatuta.

Ondo hartu dute lana Juan eta bere familiak. Senide askok negar egin zuten ikustean, eta "zoriondu egin gintuzten", gogoan du Mikelek. Senide gazteenek, "aitonari buruz asko ikasi eta ikuspegi ezezagunak deskubritu zituzten".

Beste toki batzutan egindako aurkezpenetan ere ikusleak "nolabait hunkitu" dira. Mikelen ustez, Juanen historia gertuko sentitzen dutelako. "Eurak ere lanera etorriak zirelako eta langile mugimenduarekin identifikatu zirelako". Hasierako asmoa "barrura begirako zerbait" egitea izan bazuten ere, Alternatibako lagunak konturatu dira dokumentaleko edukiak baduela lotura zuzena "jende askoren bizipenarekin".

Juanen "azken abentura" Alternatiba alderdira "pasatzea" izan da. "Euskal Herriko ezkerraren batasuna egitea". Oinarrian dagoen militantea izatea gustuko du, eta "behetik sustatzea borroka guztiak, bigarren maila batetik". Juanen iritziz, "ezkerrak elkarlana bilatu behar du fronte zabala osatzeko. Hori da EH Bildu batek adierazten duena. Ezkerrak, baina, are gehiago zabaldu behar du eskumako arerioa garaitu nahi badu. Hori da egungo militantziari Juanek egin dion irakaspenik handiena".

http:// sarekada

www.baduzu.eus

Baduzu, euskaraz kontsumitu nahi dutenen sarea

Kontseiluak, Behatokiak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteak sortu dute Baduzu. Salerosketak euskaraz egitea bultzatzea du asmoa, kontsumo ohituretan euskara irizpideetako bat izan dadin. Euskal Herriko 4.000 establezimendu baino gehiago topatuko ditu erosleak Baduzu.eus webgunean eta aplikazioan. Bai Euskarari ziurtagiria daukaten establezimendu guztiak daude zerrendan. Gainera, herritarrek denda gehiago gehitu ditzakete, baita balorazioak egin ere.

www.booktegi.eus

Euskarazko liburu elektronikoen webgunea

Era guztietako liburu elektronikoak argitaratzeko eta doan deskargatzeko webgunea da Booktegi.eus. Edonork plazara dezake bere liburua, kalitate irizpide batzuk betez gero. Liburuak eskuratzeko ez da beharrezkoa harpidetzarik ez antzekorik egitea. Gustuko liburuak aukeratu eta deskargatu, besterik ez da egin behar.

eu.wikipedia.org/wiki/Wikipedia:Estrategia

Euskal wikilarien estrategia

#Wikimedia2030 estrategia definitzen ari da Wikimedia, Wikipedia argitaratzen duen erakundea, eta hori dela eta, euskal wikilariek ere hausnarketa prozesua abian jarri dute. Hausnarketa gizarteratzea eta konpartitzea funtsezkoa dela iritzita, ekarpenak egiteko deia egin dute. Euskal Wikilariek 16 urte daramate lanean, gizateriaren historian eraiki den jakintza librearen iturririk handiena eraikitzeko. Iaz, besteak beste, Euskal Wikilarien Kultur Elkartea sortu zuten.

Lagun gaitzazu sormen politikorako eta eraldaketarako gune hobe bat Bilbon sortzen
Zuk ere Zirika eraikitzen duzu!
http://goteo.cc/zirikaeu

>>MUSIKA

VILLAPELLEJOS, ONDO PASATZEN DUEN TALDEA

Talde deustuarrak bere ametsetako bat bete zuen joan den martxoan. Goi mailako areto batean, Bilboko Kafe Antzokian kontzertua eskaini zuen Novedades Carminha taldearen telonero moduan. Aurrera begira amets berri bat dauka betetzeke, udako bira egitea Galizian zehar.

Testua: Lur Mallea - **Argazkiak:** Vilapellejos - Jokin Agirregoikoa - Ah Vanesa

"Etxerik gabe", "inframunduan" egon den taldea da Vilapellejos Santi Ron (Torax) taldeko baxu-jotzaileak barre artean dioenez. Horregatik martxoaren 10ean Kafe Antzokian Novedades Carminha taldea teloneatzen emandako kontzertuak "lehen mailarako" jauzia adierazten du. "Oso, oso ondo" sentitu ziren, "gustura" lehen mailako areto batean. "Ametsa beteta". Santiren esanetan, "nabari da tablak dauzkagula". Izan ere, Vilapellejos eskarmentua duen taldea da. "Hor zehar denbora daramagu". 2008tik egindako ibilbidea da eurena.

Agertoki garrantzitsua zapaldu ostean ez dute arazorik izan lurrera jaisteko. Villarias kalean eman zuen kontzertua Vilapellejosek apirilaren 22an. "Ondo", eta aurrera.

Ez dira sarri elkartzen, batik bat kontzertu bezperetan, seikoteak ez baitu denborarik. Ez dute taldea estutzea nahi, "taldeari gehiegi eskatu gabe" jarraitu nahi dute, ez dadin erre. Jakin badakiten arren, kontzertuak eman behar dituztela diskoak saltzeko. "Edo Atxuri tabernara joan eta bertan erosi". Beti ere, taldearen helburu bakarra ahaztu gabe: "Ondo pasatzeko jotzen dugu".

Sei dira. Horrela aurkezten dute euren burua: Sophie Pell (ahotsa eta *frontwoman*), Char-Lee Mito (ahotsa eta *frontman*), Melena Simone (teklatuak eta ahotsak), Cobos Pellejo (gitarra eta ahotsak), Santi Torax (baxu-jotzailea) eta Mr. Smoky (bateria eta perkusioak). "La CEPA del Deusto" izena ere erabiltzen dute CEP Deusto LHI ikastetxean elkar ezagutu zutelako taldekide gehienek. "Hor dago taldearen hazia". Badituzte pare bat "atzerritar" ere. Errekalde eta Zorrotzako fitxajeak.

Berriena

'Elogios y Ampollas' (2016) diskoko 10 abestiak goiz batean grabatu zituzten Bilboko Balea estudioan, denek batera zuzenean, eta arratsaldean nahastu.

Villapellejos taldekideak “oso gustura” egon ziren Unai Mimenza lagunarekin –*Mono Recalcitrante* bezala ezaguna– soinu teknikari zutela. Egun bakarreko lanak badu azalpena Santi Ronen arabera. “Bestela denbora eta dirua delako, eta guk ez daukagu ez bata ez bestea”.

Villapellejosen estudioko lehen lana, eta biniloa, da ‘Elogios y Ampollas’. CD formatuan ere kaleratu dituzte zenbait ale, baina agortu dira dagoeneko. “Agian”, beste argitalpenen bat egingo dute. Aurretik maketa bi atera zituen taldeak, “lagun artean” grabatuak, ‘La era Reagen’ (2002) eta ‘Arde Toulouse’ (2000).

Soinu “krudela” dute 10 abesti berriek. Talde askoren eragina ren menpe daudela aitortzen dute Villapellejosekoek. “Nahasketaren ondorio” dira. Joera batzuk aipatzearren bota dituzte The Intelligence, Rezillos, B-52 edota Siniestro. Ez dute gustuko *movida*-rekin edo Kaka de Luxe taldeekin alderatzea. Konparazioa “izugarria” delako. Tragaperren soinuarekin alderatzea nahiago dute.

Hitzetan ere “denetarik” aurki daiteke. Batzuk, esaterako, “nahiko politikoak” (*Gaviotas* eta *Cospedal*). Txantxa eta umorea dute tresna. “Ondo pasatzen saiatzen gara elkartzen garenean”. Horretarako entsegu lokalean “terapia” egiten dute.

Aurrera begira, ondo pasatzeko amets berri bat irudikatu dute. “Udako kontzertu bira egitea furgonetan”. Galiziara joatea dute amets, Cangas de Morrazora, bertan duten “konexioa” baliatuta.

villapellejos.bandcamp.com
facebook.com/villapellejos

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

BEGETALA YORK ETA TXAKAREKIN

Done Petri plazan bertan dagoen El Viejo Roble tabernara jo dugu oraingoan. Egunero barran jangarri egoten diren pintxo, tortilla, hanburgesa eta plater konbinatuen berri eman digute Pedro eta Elenak.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 10 minutu

Prezioa: 1,55€

Berezitasuna: freskoa bezain zaporetsua da pintxoa

Kontu batzuk

Udaberria nabari da El Viejo Roble tabernan. Goizetan ohiko gosariak eta hamaiketakoak ematen dituzte Pedro eta Elenak eta arratsaldetan garagardo ugari zerbitzatzen dituzte Done Petriko terrazara hurbiltzen direnentzat. Gose direnek pintxo aukera zabala izaten dute, besteak beste (pintxo begetala york urdaiazpiko eta txakarekin) eta oso gose direnek “momentuan bertan kalitatezko okelarekin egindako hanburgesak”. Horixe da El Viejo Robleko hanburgesen sekretua.

EL VIEJO ROBLE

Done Petri plaza 2 - Deustu - 944 76 43 96
Astelehenetik ostegunera 8:30-22:30
Ostiraletan 8:30-00:00
Larunbatetan 13:00-00:00
Igandetan itxita

Zelan egin?

Ez du misterio handirik pintxo honek. Kalitatezko osagaiak erabilita arrakasta ziurtatuta dauka. Ogi goxoa, tomate xerra fina, letxuga orri bat, fundamentuzko txaka eta norbere gustuko ma honesa erantsiz gero baietz atzamarrak miazkatzen bukatu. Edozein osagai gehigarri onartzen du pintxo honek. Oso fresko eta zaporetsua da udaberri eta udarako.

OSAGAIAK

Tomatea
Letxuga
York urdaiazpikoa
Mahonesa
Txaka
Ogia

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan…

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA
Tfnoa: 94 447 45 00
BORDATXO JATETXEA
San Pedro plazako frontoiaren atzean

Restaurante
Deustoarrak
Tfnoa: 94 475 41 54
Faxa: 94 475 88 02
Madariaga etorbidea,9
48014 Deustu
www.deustoarrak.com
deustoarrak@terra.es

Pedro Carballo Suárez
el viejo roble
cervecería
Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

GARAZI CALVO FERNANDEZ

Arte Ederretako ikaslea

OREKA

Opor txiki hauek joan dira, eta eurekin gure neke eta antsietate guztia joan dela sinetsi nahi dugu. Behintzat, Aste Santu honetan otoitz egin dugu batzuk horrela izan dadin. Orain azken txanpa heltzear dago, zentratu eta pilak jartzeko garaia, 'orain edo inoiz ez' famatua. Baina hala bada ere, edukiko ditugu tartetxo batzuk gozatzeko ere. Gozatzeko... musikaz, lagunetaz, eguzkiaz; hori ez digute kenduko. Argi daukagulako amaierako presio hori moduren batean edo bestean kontrastatu behar dugula, orekatu eta balantza horizontal mantendu.

Eta orain, nahiz eta bakoitzak bere gustu eta interesak izan, nik botako dut eskaintzaren bat, tarte horiek betetzeko aukera izan daitekena: apirilaren 24an Bilboarten proiektatu den *Córtate el pelo* dokumentala, Marino Goñirena. Marino diskografika batzuetako zuzendari izan da; La Polla Records, Hertzainak, Barricada, Berri Txarrak eta beste talde batzuen diskoak kaleratu dituzten horietakoa. Dokumental honek Nafarroako 60ko hamarkadako rock taldeei buruzko informazioa barnebiltzen du, musikan zebiltzan pertsonaia ezberdinen entrebistak erakutsiz, eta aldi berean garaiko egoera sozio-ekonomiko eta politikoa moduren baten agertaraziz. Beraz, aukera paregabea ematen du garaiko giro eta musikazaleontzat.

Aurreko honekin batera, nahiz eta gehienok jakingo duzuen, gogoratzen dizuet Deustuko Herriko Tabernaren 30. urteurrena ospatuko dela maiatzak 2tik 6ra, eta aurten eskaintza kulturalarekin potente datorrela egitaraua, 30garrena ez delako lehena! Beraz, adi ibili, eta zuen buruak zaindu ito aurretik oreka bilatuz!

OIHANA ACUÑA IRIGOIEN

Elorri bertso-eskolako kidea

LORALDIA

Martxoan hasi da ta
kultur oparia
euskara bultzatzeko
Bilbon jaialdia
ikusle asko doaz
kopuru handia
aurten nik ez dut galdu
gure Loraldia!

Antzerkiak ta dantzak
denetik dago hemen
gustukoena hartu
hasi disfrutatzen
mila aukera daude
zaila aukeratzen
joan zaitez korrika
sarrerak erosten

KULTURA BARRUTIK
PROGRAMACIÓN CULTURAL EN DISTRITOS



UDABERRIKO BERTSO SAIOAK

MAIATZA 2017 SANTUTXU

94 401 00 10 / 010
WWW.KULTURABARRUTIK.EUS
KULTURA BARRUTIK
BILBAO KULTURA

KARMELO PLAZA 6, 13, 20 · 13:00
BERTSO-POTEOA 26 · 20:00

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

Santutxuko bertso eskola

DEUSTUKO HERRIKO TABERNA

30. urtez

1. MESTUE

eta zabalik!

MAIATZAK 2-6

Hitzaldiak | Kontzertuak | Herri bazkaria | Haurren txokoa | Txapelketak

Arangoitiko
XIII. Euskal Jaia

MAIATZAREN 6tik 14ra
2017